

B

BARREN

TOKIKOM



Saminean eta maitasunean ereindako dokumentala

'Betirako argia', Jairo Berbelen azken lana



TXILLARRE ekodenda



- * Baserriko produktu ekologikoen salmeta zuzena
- * Produktu aukera zabala:
 - Zerealak, lekaleak,... soltean
 - Kontserbak
 - Makrobiotika
- * Okela biologikoa
- * Etxez etxeko banaketa zerbitzua: Elgoibar, Mendaro, Eibar, Zumaia,...



Harremanetarako:
 Kalebarren plaza,1 - Merkatu plaza
 20870 Elgoibar
 p.ekologikoak@gmail.com
 635 008 496 - www.txillarre.es



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
 9:30-13:00
 16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
 Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
 - Kontaktologia

Egunero:
 9:30-13:00 / 16:30-20:00
 San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
 Aita Agirre enparantza,
 5 behea - Elgoibar
 Tel: 943 530 053
 lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIAI
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
 9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
 Elgoibar (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 531 953
 Tel.: 669 565 745

177\12
fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua

(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
 (erabilitazioa)
 3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekanika (kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
 Tel.: 943 740 191
 667 953 628



Iñigo
Lariz

Kaixo, Ainhoa. Urte batzuk pasatu dira elkarri idazteko proposamena jaso genuenetik BARRENenetik. Hasieran erronka horri aurre egiteko gaitasuna izango ote nuen galdetzen nion neure buruari.

Gaien aukeraketa egokia ote zen, modu egokian idazteko gai izango al nintzen, nire ideiak islatzeko hitz eta esamolde egokiak bilatzeko moduan izango ote nintzen... Buruari galdezka eta galdezka ibili nintzen. Denboraren laguntzaz neure buruari egindako itaun horien erantzuna jaso dut. Egitearen poderioz, BARRENeko atal honetako tarte geroz eta erraztasun gehiagoz eta neure buruarenganako segurtasun handiagoarekin betetzea lortu dut. Askotan dira Zofoak beleari atalean jorratu ditugun gaiak. Egutegietan ikusitako berriei buruz hitz egin dugu maiz, garaian gaurkotasuneko gertakizun edo egoerei buruz aritu gara batzuetan.

“Hemendik eskerrak ematea nahiko nuke gure iritzia plazaratzen uzteagatik”

Besteetan, ostera, gai orokorrez. Baina kirolarekin lotuak gehienak, guztiak ez esateagatik. Izan ere, kirolerako dugun zaleztasunak batzen gaitu gu. Kirolaria izaki, idazten baino askoz erosoago ibiltzen naiz maldan gora korrika, bihotza ahalegin osoan dudala. Baina iritsi gara lasterketa honen helmuga ere. Hemendik eskerrak ematea nahiko nuke gure iritzia plazaratzen uzteagatik.

Ziur nago egindako hanka-sartzeak handiak izan direla, beraz barkatu, baina asmatuko genuen zerbeitetan eta horiek kontuan hartu.



Ainhoa
Lendinez

Azken arnasa, Iñi! Azkar igaro da denbora. Zenbat aldiz egin ote digute errieta, testuak berandu bidali ditugulako. Zenbat aldiz idatzi ote diogu elkarri, inspirazioaren argia pizten laguntzeko eskatzeko. Zure zofo eta nire bele argazki horiek ere zaharkituta ikusten ditut.

Bakanen batek esan izan dit kirola beste gairik ez dugula ibili esku artean, eta aldatzeko, idazteko bestelako gaiez. Oker ez banga, ordea, kirol zaleztasunak elkartzen gaituelako bihurtu gintuzten zofo eta bele, eta ezinbestean hartu dute hitza kirol kontuek gurean. Ederra izan da. Helmugarako karaktere gutxi batzuk baino ez zaizkigu falta, eta ez dakit besoak altxatzeko moduan ote garen. Sartuko gara eskutik helduta helmugan? Susmoa daukat, lasterketa bat amaitzen denean bezala, oraingoan ere aurki jantzi ditugula berriz zapatilak, beste bati ekiteko.

“Eskerrik asko bihotz-bihotzez, BARREN, eta mila esker, Elgoibar”

Nolanahi ere den, dortsala ondorengoei pasatzeko unea iritsi zaigu. Bota dezatela hurrengoek izerdia orain gure partez. Ni neu, fidel-fidel arituko natzaie ostiralero bazterretik animoak ematen, BARREN irakurriz.

Gustatu bazaizu, on egin; haserretu bazaitu, barkatu. Zenbat buru, hainbat aburu. Ez dago besterik. Eskerrik asko bihotz-bihotzez BARREN, eta mila esker, Elgoibar. Zuk eta biok Karakaten goira segiko dugu elkarri mokoka, Iñi!





MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantutzea: egut, aluminio, PVC
Pintura orokorra

**GRUP
VILARCHAO**

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Ima Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskualdeko Toponimoa

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Betaurrekoak galdu nituela eta...

Lerro hauen bitartez, nere eskerrik beroena eskaini nahiko nioke joan den igandean, martxoaren 8an, eguerdian, kiroldegia eta Basarte arteko bidean, betaurreko batzuk aurkitu eta Udaltzaingoa utzi zituen pertsonari. Eskerrik asko bene-benetan.

LMG 15.318.735-E ☞

Etxe gabeko jendea, jende gabeko etxeak

Duela zenbait aste agertu zen BARRENEN notizia, ertz batean, apenas lau lerrotxo; eta oharkabean pasa zitzaigun gehienoi. Ez dut inor sumatu gerroztik eskandalizatuta, aztoratuta, tximetatik tiraka gaizki zer egiten ari ote garen galdezka, garrasika auskalo nori. 500dik gora etxe huts omen daude Elgoibarren. Eta naturalizat asumitu dugu, ekonomiaren engranajeek martxan jarraitzeko ezinbestekotzat, aldaezin bailitzan.

Ba ez. Ezin da onartu halakorik ezeren izenean. Nola da posible gazteok gurasoen etxetik atara ezinda, pisu baten gastuei aurre egin ezinda gauden aldi berean, ehunka etxebizitza hutsik egotea, norbaitek beraiekin negozioa egiteko zain, edo besterik gabe esperoan? Nola da posible bakar batzuek 2-3-4 etxebizitza izatea eta beste batzuek kale bazterretan lo egiten jarraitzea?

Kasuistikak etxe huts bakoitzaren atzean historia bat aurkitzera garamatza. Baina nago asko direla inork erabili gabe eta erabiltzeko intentzio gabe gainbehera datozen etxe eta baserri zaharrak. Etxebizitza negozio egin dutela ikustea ez da berria; hor daukagu etxegabetzeen kasu gordinak ere. Beti hala izan behar ote du ordea? Sortu ditzaigun alternatibak bizi osorako hipoteka kondenaetik eta alokairu itogarrietatik haratago. Ni neu prest nengoke, beste gazte batzuekin batera, etxe edo baserri huts bati bizitza emateko, mantentzearen eta zenbait gastu ordaintzearen truke. Seguru ez naizela bakarra. Eta seguru badela beren etxe hutsari zentzuzko irtenbide bat eman nahi dion jaberik ere. Bizirik gabeko etxeak zahartu egiten dira, erori. Etxerik gabeko gazteak ere zimeldu, nekatu. Eta gazterik gabeko herriak, hil. (Inork interesik bala, hemen telefonoa: 678 155 803)

44346291Z ☞

Legealdi Planaren balorazio tranposoa

Udal aldizkariaren beste ale bat jaso dugu etxean, 2011-2015 Legealdiko Planaren Balorazioa izenburuduna. Inork pentsatu badu, deskui-

datuta edo, balorazio zintzoa aurkitzea bertan, jai dauka.

Legealdi Planaren balorazioaren, orde, sailez sail egindakoen zerrenda bat aurkituko duzue. Legealdi planean esandakoen erreferentziarik edo betetze mailarik ez inon. Propaganda hutsa da, hauteskundearen aurrean denon diruarekin ordaindu dugun propaganda. EAJK eta PSEk propaganda egitea zilegi da, baina udal bitartekoak, denonak direnak, horretarako erabiltzea ez.

Aukera zeukaten Legealdi Planaren balorazio zintzoa egiteko, betetze-maila eta aldaketak arrazoituz, baina argi dago zergatik ez duten egin. Nola azaldu asmo gehienak ez dituztela bete? Nola esplikatu Legealdi Plana azken urtean harrapatuta egiten ari diren obretara baino ez dela mugatu?. Ez dira gai izan beraiek planifikatutako proiektu eta egitasmoak aurrera ateratzeko. Besteak beste:

- Etxebizitza hutsak alokatzeko aukerak bultzatzeko egitasmoa.

- Herri Sozietate Instrumental baten bidez, Udalaren titularitatekoak diren lurzoruetan etxebizitzak eta ekipamenduak sustatzeko dagoen aukeraren azterketa.

- Azalera gutxiko etxebizitza merkeak. Esperientzia pilotu bat abian jartzea. Etxebizitza horiek salmentan jarriko dira, eta balio galerarekin itzuli ahal izango dira. Etxebizitza horiei esker, besteak beste, gazteen emantzipazioa bultzatzea.

- Tokiko Ekonomiaren Ekimenerako Foroa sortzea. Topagune bat sortzea jardueraren, joeren eta aukeren jarraipena egiteko; guztiontzako gakoak, beharrak, arriskuak, zuzentzaileak... aurkitzeko eta Elgoibarko herriaren garapena eta bilakaera ekonomikoa bideratu ahal izateko.

- Ingurumenaren iraunkortasunari eta hobekuntzari buruzko ordenantza. Eraikinak eraikitzeari eta eraberritzeari dagokionean ordenantza egitea.

- Ortu ludikoak egitea, sentsibilizazioarako eta ikaskuntzarako lanabes gisa.

- ElgoibarEKIN: Harremanetarako baliabideak eta ingurune fisiko partekatu bat sortzea. Aisialdirako gune bat sortu nahi da, non jakinminak, formazioak eta lanak ere lekua izango duten.

Adibide hauek ez ditugu geuk asmatu, beraiek adostu zuten Legealdi Plana (hartu bost minutu Udalaren web orritik irakurtzeko), eta orain, pelikulak.

Elgoibarko EHBildu ☞

zuri

esker

“Gizarte Zerbitzuei esker, nire lagun Naiarak kalte egiten zion harremana gainditu du eta libre bizi da orain.”

Ainhoa, 17 urte



Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

1.229.000 euro bideratuko ditu Eusko Jaurlaritzak 'Meka' ikastetxeko eraikina berritzeko

1954an zabaldu zuten San Roke auzoko Meka ikastetxea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 1.229.000 euro aurreikusi ditu aurtengo aurrekontuetan San Rokeko *Meka* ikastetxeko eraikina berritzeko. *Meka* ikastetxea 1954an zabaldu zuten, eta ordutik hainbat berrikuntza ezagutu ditu. 1979an ikastetxea handitu zuten, Olaizaga kirol-degi aldera zeuden lursailak hartuta, eta 1986an gauza bera egin zuten, Telefonikako eraikinaren aldera. 1999an, berriz, soldadura tailerra egin zuten. Orain eraikina berritzeko unea iritsi da, izan ere, eraikinaren alderik zaharrenean ura sartzen da euria egiten duenean. Horrez gain, hainbat leiho ere aldatuko dituzte, isolamendu neurriak ez dituztelako betetzen. Azkenik, ikastetxearen kanpoaldeko ateak aldatuko dituzte, eta tailerrerako sarrera-koak ere bai, beroa hobeto mantentzen duten ate berriak jartzeko.

Lehiaketa publiko bidez aukeratuko dute obra egingo duen enpresa, eta behin lanak esleitzen direnean, 19 asteko epean amaitzea aurreikusi dute.



Hasi dituzte King-Kong eta Maala arteko bidea konpontzeko obrak

King-Kongeko autobus geltokitik Maalako errotondara arteko bidea egoera txarrean zegoen, eta euria egiten zuen egunetan bereziki, ur putzu handiak sortzen ziren. Egoera horri irtenbidea emango dio Udalak, eta dagoeneko hasi dira lanean. 18.157 euro erabiliko ditu Udalak lan hori egiteko, eta aurreikusitakoaren arabera, datorren asterako erabiltzeko prest egongo da.

Datorren astean hasiko dituzte San Rokerako zubia berritzeko obrak

Datorren astean hasiko dituzte trenbide gaineratik San Roke auzora doan zubi zaharra berritzeko lanak. Espaloiairen paraleloan dauden hormatxoekin ordez altzairu herdoilezinezko barandak jarriko dituzte eta trenbidetik gertuen dagoen espaloia luzatu egingo dute igogailu berriraino. 83.857 euroko inbertsioa egingo du Udalak, eta pare bat astetan obra amaitzea espero dute.



Eguna **Martxoak 8**



Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta, hainbat herritar batu ziren domekan, Emakumearen Nazioarteko Egunean, Kalegoen plazan egin zuten elkarretaratzean. Elgoibarko Udalak adostutako adierazpen instituzionala irakurri zuen Bittori Zabalak eta Beinke bertso-eskolako ikasleen laguntzaz pare bat bertso abestu zituzten plazan batutakoek. Bideoa eta argazki gehiago ikusteko: www.barren.eus

Irudia **Zuhaitz Eguna**

Zuhaitz Eguna antolatu zuen Morkaikok joan zen domekarako, eta ehun bat ume eta nagusi aritu ziren zuhaitzak landatzen Sargoaten. Pagoak, gorostiak, urkiak eta urritzak landatu zituzten. Berrogei zuhaitz landare landatu zituzten guztira. Ilbehera zela aprobetxatu zuten jarduera hori egiteko, izan ere, basogintzan ere eragiten du ilargiak eta ilbehera garai egokia da sustriak eta erreboiak biltzeko, lehortu behar ditugun landare edo aleak jasotzeko, kimaketak egiteko, lurra ongarritu eta prestatzeko edo landareak landatzeko. Eguraldi eguzkitsua lagun, goiz ederra pasa zutela azaldu dute Morkaikoko kideek. Argazki gehiago ikusteko: www.barren.eus



Pobreziaren feminizazioari buruzko hitzaldia antolatu dute martitzenerako

Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak eta Udaleko Berdintasun Sailak pobreziaren feminismoari buruzko hitzaldia antolatu dute martitzenerako. *Krisia ez da neutroa generoari dagokionean* izena jarri diote hitzaldiari. Nekane Jurado ekonomilari eta psikologoa izango da hizlaria, eta, besteak beste, krisiak genero ezberdinei nola eragiten dien azalduko du. Hitzaldia 18:30ean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Kiropraktikari buruzko hitzaldia martitzenean, jubilatuen biltokian

Xabier Mendiaraz kiropraktikoak osasunari buruzko hitzaldia eskainiko du datorren martitzenean, jubilatuen biltokian. Norberak bere osasun egoera hobetzeko egin ahal dituenak azalduko ditu, eta bizkarrezurrak gizakiaren osasun egoeran duen garrantziaz hitz egingo du. Azkenik, kiropraktikak gure osasunari nola lagundu ahal dion azalduko du. Hitzaldi irekia da, eta edozein herritarrek hartu dezake parte. 18:00etan hasiko da.

Trinitateetako azokan izena emateko epea apirilaren 1ean amaituko da

Maiatzaren 30ean izango da Trinitateetako azoka berezia, eta interesatuek apirilaren 1era arte dute izena emateko epea. Izena emateko Debemen elkartera deitu behar da: 943 744 067.

Odol ateratzeak egingo dituzte Mendaron, hilaren 20an

Mendaroko odol emileen elkarteak jakinarazi du hilaren 20an egingo dituztela odol ateratzeak, Mendaron. Odola emateko interesa duenak 18:00etatik aurrera izango du aukera, Mendaroko ikastolan.

100 urte, eta argi

Otsailaren 13an 100 urte bete zituen Mari Karmen Agirre moja klaratarrak, senide eta lagunez inguratuta, eta ez du ahazteko. Elgoibarko komentuan bizi da azken hamar urtean, “erreginen pare”. Gutxierekin bizi da itxura batean, baina ez du gehiago behar. Zaintzaile primerakoak ditu, senide “maitagarriak” eta alegiazko lagun maite bat: Filiber-ta. Otoitzari emanda bizi da, eta kantuan eta hizki-zopak egiten ematen ditu orduak.

Ainara Argoitia

Bere gelan hartu gaitu Mari Karmen Agirrek. Gela xumea da oso. Ezinduentzat egokitutako ohea albo batean, egurrezko mahai biribila leiho ondoan, eta parez-pare, komun txiki bat. Senide batek etxeko gurtien argazkiekin osatutako egutegi pertsonalizatuak ematen dio kolorea gelari. Eta hantxe dago bera, Mari Karmen, azal leuneko eta hizkera goxoko emakumea, irribarretsu, gurpidun aulkian. Ezin du oinez egin, lausotua du ikusmena eta apalduta entzumena, eta sarri bustea eskatzen dio ez-tarriak, hitz egin ahal izateko. “Zahartzaroan edanari eman diot, baina ez kezkatu. Ura da. Ardo pixkat ekarriko balidate sikiera...”, bota du umore handiz. “Sasoiko” dagoela dio. “Zer nahi duzu ba! 100 urte dauzkat! Oso gustura nago”. Hizki-zopen liburua dauka mahai gainean zabalik, eta lupa handi bat ondoan. “Ezin dut irakurri, baina betaurrekoak jantzi eta luparen laguntzarekin moldatzen naiz hizki-zopa egiteko”.

Bakean bizi dela dio behin eta berriz, ez duela ezer gehiago behar. “Gure etxean sekula ez da kapritxotarako aukerarik izan. Hemen, gainera, erreginen pare bizi naiz”, bota du. 100 urte bete baditu, horretxegatik izan dela us-te du. “Jainkoaren gogoia izango zen nik 100 urte betetzea, baina norbere buruarekin eta ingurukoekin bakean bizitzeak ere izango du zerikusirik, baita gehiegikeria gabeko bizimodua izateak ere”. Genetikak ere egiten du berea, baina. Mari Karmenen senide gertukoenetan askok hartu dituzte 90 urte baino gehiago. Ama, esaterako, 93 urterekin hil zitzaion, ahizpa Mercedes 98 urterekin, eta ahizpa Rosarito 90 urte beteta.

Lizardi poeta eta neba, akorduan

Hamalau neba-arrebetan gazteena da Mari Karmen, sortzez tolosarra. Hala ere, eta hamalau jaio baziren ere, zortzi neba-arrebek egin zuten aurrera Agirre-Egaña familian, haietako sei oso ume zirela hil zirelako. “Zortzi gelditu ginen, bost neska eta hiru mutil”. Bi txikienak amarekin gelditu ziren Tolosan, eta beste batzuk Zarautzera joan ziren izebengana, amari lan-karga arintzeko [Aita 48 urterekin hil zitzaion Mari Karmeni, berak hamar hilabete zituenean]. Etxeko denak zituen oso estimutan berak, bai-



26 urterekin sartu zen moja Mari Karmen, eta 73 urte bete ditu komentuan

na ezin du Jose Mari neba zaharrenarekiko lilura ezkutatu (Zarautz, 1896 - Tolosa, 1933). *Xabier Lizardi* goitizenez ezaguna egin zen euskal idazlea zuen neba zaharrena Mari Karmenek. "Gizon altua zen, guapoa, eta oso zen ona eta goxoa familian. Euskaltzale amorratua ere bazen, eta oso olerkari ona, baina ia hil zen arte ez genuen haren olerkari ibileren berri izan etxean [Pneumoniak jota hil zen, 1933an]". Gogoan du, hala ere, Jose Mari idatzi zuen aurreneko liburua oparitu zieneko eguna. "Gure izeba batek galdetu zion behin ea zer zen kalean entzun zuen hurra. Oso olerkari ona zela esan ziotela eta ea egia ote zen. Jose Mari burua jaitsi, barre txiki bat egin, eta baietz erantzun zion. *Bihotz-begietan* poema liburua oparitu zigun". Gerora, Joxe Mariren beste bost bat liburu eskuratu zituen Mari Karmenek, eta baita irakurri ere han esaten zituen guztiak.

Poesiarako, katurako eta oro har artearako zaletasuna etxean denek izan dutela nabarmendu du. Organo-jolea izan zen bera komentuan, harik eta atzaparrak gogortu zitzaizkion arte. Ume-umetatik datorkio zaletasuna. Jose Mari nebaren etxean jarri zen lehenengoz piano aurrean, 4 bat urte zituela. "*Dales de betún, dales de betún...* jotzen ari nintzen egongelan, ateari bizkarra emanda, eta halako batean sekulako barre-algarak entzun nituen. Jose Mari zen. Ez zitzaidan batere gustatu haren barrea, ondo ari nintzelako nire ustez". Karakter sendoa zuen umetan, eta mantentzen du gaur ere. Mantentzen du, era berean, katurako zaletasuna ere. "Ahots onik ez dut, baina gustatu, beti gustatu izan zait", dio, eta ekin dio kantuari: "*Oh, Euskal Herri, maite, maite, maite / zuri begira nago / baina, nola! nola! / lehengo antzikan ezin / emanik inola. / Atzo zinan zorion / guzien krisola / eta gaur? Eta gaur? / gaur bestien gisan, Espainola*". Memoria lausotu zaio bat-batean, baina. "Lehen, denak nekizkien, baina... edadea da", desenkusatu da, baina ez dauka, hala ere, isilik gelditzeko asmorik. Imanol Urbietta zenak musikatutako *Euskera, oi euskera* kantuaren lehen hitzak gogorarazi dizkiote gelara batu diren ahizpek, eta hasi da, lehen baino ozenago: "*Euskaldun hazi / euskara hutsik amak / zidan erakutsi. / Euskara maite, maite / zabiltz ne(re)kin beti, euskara hil ezker / ez nuke nahi bizi*". Hunkitu ere egin du kantuak, malakoak isurtzeraino. "Euskara hutsik amak zi-

dan erakutsi' dio kantuak, baina gezurra da hori. Amak bakarrik ez zidan irakutsi", bota du, burua kazetariari jiratuta. Umore fineko emakumea da Mari Karmen. "Konta iezaiezu, Mari Karmen, zein den zure lagun Filiberta", esan dio Maria Jesusek ondotik. Komunezko izpiluari begira jarri, eta "horko zatar hori duzu Filiberta, eta Segismunda naiz ni haren aurrean" erantzun dio. "Askotan izaten dut begira, eta halaxe esaten diot nik: 'ai, Filibertita nirea; ai, nire maitea, baina zein guapa zaren! - 'gezurra da, baina tira', zuzendu du ahopean-. Esan didate zu ere ez zarela mezetara joaten. Normala! Jakin dut ondo jantzitako gizon bat egoten dela han, noiz jarri eta noiz tententu agintzen. Nola joango gara ba!". Barre-algaraka jarri ditu gelara batu diren guztiak. Era horretako "zoro-kontuak" ume-umetatik datozkiola dio. "Areagotuz doan kontua da gainera!, gehitu du. Halaxe pasatzen du eguna, ohetik gurpildun aulkira eta aulkitik ohera, "lasai-lasai". Arratsaldetan, baina, elizara ere jaisten dute moja-lagunek, 18:15ak aldera. "Otoitzean ematen dut eguna. Otoitz egiten dut isilean maite nauten guztien alde, eta orain, zuen alde ere bai", zuzendu zaigu.

73 urtez moja

26 urterekin sartu zen moja, eta 73 urte bete ditu komentuan, lehenengo 63ak Portugaletan, eta azkeneko hamarrak, Elgoibarran. 100 urtean, denetarik tokatu izan zaio bizitzea, baina akorduan dituenak gehiago dira une goxoak. "Kontu ilunei alde egiten uzten diet". Hala ere, badira kontu batzuk nekez ahaztuko dituenak, amaren kartzetaztea, esate baterako. 36ko gerran hamabost egunez preso izan zuten, Tolosan. "Nafarrak Tolosan sartu zirenean Zarautzera alde egin genuen, beldurrez. Nire nebak-eta oso euskaltzaleak ziren eta arrakatsua zen garai hartan. Tolosako mediku lagun batek, baina, arropa eskaini zigun negurako eta ahizpa,

ama eta ni neu bila joan ginen aldi batean hartu zuten gure ama preso", oroitu du. 36ko gerran ohikoak ziren auzoen arteko salaketak, eta halakoren bat gertatu zen ustea du berak ere, baina konfirmatu ezinak isilik egotera behartu du. "Beste garai batzuk ziren". Asko ikustea tokatu zaio bizitzan, eta Eliza katolikoan bertan ere bizi izan ditu garai zailagoak, "ilunagoak". Vatikanoko II. Kontzilioarekin Eliza asko "zabaldu" zela iritzi diote moja lagunek ere. "Lehen, ezin zen komentuan inor sartu ere egin. Aurpegia estalita ibili behar izaten genuen. Gutun bat iristen zitzaigunean ere abadesak irakurri behar izaten zuen aurrea, eta geuk idazten genuenean, berdin. Ipuin ziren kontu asko sinesten genituen. Gogorak izan beharra genuen. Jainkoaren irudia bera ere oso bestelakoa zen. Beti zegoen zelatan, eta beti zigortzeko, jakina, baina nik beti izan dut argi hori ezin zela horrela izan. Jainkoa beti nuen neure zain, beti laguntzeko eta sekula ez amorruz".

Gustukua du aldaketa, eta baita Francisco aita santua bera ere, Vatikanoko buruzagia. "Izugari" maite duela dio, gaur egunerako egokia dela: "Denentzako aita da, bai maite dutenentzat eta baita maite ez dutenentzat ere. Gertukoa da". Haren "samurtasuna" estimatzen du gehien. "Pertsonekin tratatzeko ezin da txorizoa izan, eta ezta piperra ere. Horiek lapirakorako, bai, baina bestela ez", gehitu du. Pena du ezin duela haren inguruan irakurri gaur, eta kontu alaietara egin du jauzi berriz, otsailaren 13ko urtebetetze ospakizunera.

Egun horretan etxekoek antolatu zioten jaia da sekula ahaztuko ez duen une horietako bat. Lau belaunalditako senideak etorri zitzaizkion Elgoibarrera bisitan, eta haietako batek gonbidatuta, baita Euskal Telebistakoak ere. "Ikaragarria" izan dela dio. "Haserretu ere egin nintzen lehenengotan, hainbeste gastu egin eta horrenbesteko lana hartu zutelako. Jai hura guztia niretzat? Nik ez nuen merezi horrenbeste, baina gero konturatu nintzen ez neukala haserretzeko eskubiderik eta poztu nintzen, izugarri. Ezagutzeko baino jende gehiago batu zen hemen! Zenbat musu jaso ete nituen!. Horrenbeste musurekin ez dakit aurpegia osorik utzi bazidaten ere!". Aurpegia ikutu du, dena bere lekuan duela egiazatzeko keinu eginez, eta hustu du botilatxo. "Ai, ardoa balitz..."

BADATOR KORRIKA



Badator Korrika. Martxoaren 23an, astelehenez, iritsiko da Korrika Elgoibarrera (18:15ak aldera), Soraluzetik, eta Debarako bidean, Mendaron ere sartuko da euskararen aldeko lasterketa oraingoan, herriko plazaraino bertaraino (19:10ak aldera). Hasi, baina, Urepelen (Nafarroa Beherea) hasiko da Korrika, eguenean, martxoaren 19an, eta 11 egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hemeretzigarrenez, martxoaren 29an Bilbora heldu arte. *Euskahaldundu* izango da Korrikaren leloa oraingoan, eta Durangoko Azoka, Korrika honetako omendua, aurten 50 urte beteko dituelako euskal liburu eta disko azokak. Beste behin ere, euskaraz bizi den herria agertuko du Korrikak, eta antolatzaileek parte hartzera deitu dituzte herritar guztiak, euskararen herri hori auzolanean hazi behar dela sinetsita.

Ainara Argoitia

Zelan ahaldundu euskaldunak, zelan erakarri euskararen mundura orain arte hurbildu ez direnak. Horixe da AEKren kezka ere azkeneko urteotan, eta horrexegatik aukeratu du *Euskahaldundu* oraingoan lelotzat. “Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen”, esan zuen Amets Arzallus bertsolariak duela bi urteko Korrikaren amaiera ekitaldian, Baionan, eta orduan esandakoa berretara dator orain Korrika; euskahaldundu gaitzezela, alegia. Horretarako, Euskal Herria euskalduntzeko, norberaren eta taldearen ahalmenean sinetsi behar dela jakitun da AEK, eta ahalmen hori erabiltzera deitu dute; ahalegin pertsonalak batu eta auzolanean ahalmen hori biderkatuz. Azken batean euskararen herria euskaldun eta euskaltzale guztiak osatzen dutela nabarmendu dute, eta soilik elkarlanean eta auzolanean lortuko dela euskaraz biziko den herria.

Ohi legez, bi helburu nagusi izango ditu Korrikak: batetik, gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea, eta bestetik, gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea. Eta ohi legez, fin erantzun dute herritarrek, kilometroak eta Korrikaren aldeko materiala erosiz. Hamar kilometro saldu dira Mendaron, inoiz baino gehiago, eta 22 taldek egin dute diru-ekarpena Elgoibarren. Hurrengo lerroetan, azalduko dizuegu zein ibilbide egingo duen Korrikak Elgoibarren eta Mendaron, eta zeintzuk elkartek hartuko duten lekukoa. 18:15ak aldera iritsiko da Korrika Elgoibarrera, baina aurrez 17:45ak aldera, giroa bertzeari ekingo dio Mautxita txarangak, Korrikari behar bezalako ongi-etorria egin ahal izateko.

ELGOIBARKO IBILBIDEA

- Haizea emakume taldea (Zaturio)
- Sanlo (Errepide ondoko zubitxo)
- Gainduko langileak (Gaindu, errepide nagusitik)
- Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea (Hilerrri ondoko autobus geltokia)
- Mauxitxa Txaranga (Santa Ana kaleko Eroski)
- Morkaiko mendizale elkarte (Gorbea taberna)
- EAJ (Laboral Kutxa)
- Gipuzkoako Urak (Armueta harategia)
- Alkortako LAB (Gabi jatetxea)
- Udalaren Euskara eta Kultura batzordeak (Astigarraga denda)
- IMH - Herri Eskola - Haur Eskola - Institutua - Meka GLHBI (Jai Alai taberna)
- EH Bildu (Murua gozotegia)
- Ikastolako langile, ikasle eta gurasoak (Lorito)
- Kimetz elkarte (Iratxo Rock kafea)
- Txankakua Elgoibarko Merkatarien Elkarte (On informatika)
- Jabier Zengotita eta Felix Etxeberria (BIOK dekorazioa)
- Gazte asanblada (La Perla taberna)
- Haritz euskal dantzari taldea (Melitongo zubia)
- IK-4 IDEKO (San Pedroko tren-tunela)
- Danobat (Karkizano gaina)
- AEK euskaltegia (Arriaga industrialdea)
- Lagunak pilota eskola (Altzolako autobus geltokia)

MENDARO

- Mendaroko ospitala (Lanbi tailer parean)
- Gazte asanblada / Motxaila Band / Motxaila elkarte (Aingeru Guarda)
- RTS (Kurutzgain)
- Arno guraso elkarte eta Mendaro Ikastola (Zubi hasieran)
- Ludoteka eta Gaztelekua (Coviran denda aurrean)
- Musika eskola (Azpilgoetako zubi bukaeran)
- Giza proba taldea eta Bizipoza txaranga (Arrats taberna)
- Herriko elkarte gastronomikoak (Lizantzu baserri parean)
- Mendaroko Udala (autopistako zubipean, errepide nagusian)
- Mendaroko Txirindulari Elkarte (Txatarrerri paretik Sasiolaraino. Sasiolan debarrek hartuko dute lekukoa).

Beste Korrikak



Korrika nagusiarekin batera, Korrika txikiak ere egingo dira martxoaren 23an Elgoibarren eta Mendaron, biak ere 15:00etan hasita, eta baita Korrika Gaztea ere.

KORRIKA TXIKIA ELGOIBARREN:

Elgoibar Ikastolak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatu dute Elgoibarko Korrika Txikia eta Maalatik Kalegoen plazara arteko bidea egingo dute elkarrekin. Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek hasiko dute ibilbidea, Maalan, eta King Kongen LH5ekoak batuko zaizkie. Ondoren, LH4koak gehituko zaizkie, plazan, eta Santa Ana kaleko Eroskin LH3koak hartuko dute lekukoa. Handik plazara artekoa egingo dute denek, eta plazan, LH2koak batuko zaizkie, eta azkeneko zatian, Kultur Etxe parean, LH1ekoak. Plazan amaituko dute Korrika Txikia. Bukaeran, Beinke bertsola eskolakoek prestatutako hainbat bertso kantatuko dituzte haurrek elkarrekin eta Atxutxiamaika aisialdi taldeak antolatuta, *Euskaraz bizi nahi dut* eta *Egiozu euskaraz* kantuak dantzatuko dituzte ondoren. Gero, 16:30etik 17:45ak aldera arte, jolasak eta tailerrak antolatu dituzte Atxutxiamaikak eta Ludotekak elkarlanean.

KORRIKA TXIKIA MENDARON:


Ikastola parean abiatuko da Korrika Txikia, eta ondorengo ibilbidea osatuko dute, lekukoa eskuz esku pasatuz. Ikastola parean hasiko dute korrika Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek eta Kapainera abiatuko dira, Txirristaka taberna pareko al-dapan gora. Han buelta eman eta San Jose plaza gurutzatuko dute gero, eta ikastola parean, LH5eko ikasleei emango diete lekukoa. Errepide nagusia gurutzatuko dute gero bi taldeek Itzabakoitzan gora eginda Azpilgoetan sartzeko, eta aldapa hasieran, LH4ko ikasleak batuko zaizkie. Azpilgoetako eliza aurrean batuko zaizkie gero LH3koak, eta zubi hasieran, LH2koak. Zubi bukaeran batuko zaizkie LH1eko ikasleak eta Coviran haurrean Haur Hezkuntzako azken mailakoak, 5 urtekoak. Tren geltoki parean 4 urtekoak gehituko zaizkie tropelari eta ikastolan bukatuko dute korrika txikia, kalejira batekin. Han, 3 urteko neska-mutilak hartuta, patioari buelta bat emango diote elkarrekin. Mendaroko ikastolak antolatu du Korrika Txikia, Arno guraso elkartearen laguntzarekin.

KORRIKA GAZTEA

Korrika Elgoibarrera etorri den aldiro egin duten bezala, Korrika Gaztea antolatu dute IMHK, Mekak eta Elgoibar BHI institutuak elkarlanean. Goizeko 10:15ean hasiko dute Korrika Gaztea Albitxurin eta honako ibilbidea osatuko dute: Albitxuri, IMHko bidegurutzera, Mintxetako gaina, Institutua, kiroldegia eta Makina-erremintaren museoan bukatu. Museo aurrean, adierazpen bat irakurriko dute ikasleek.

'NO MORE TOUR' DOKUMENTALA EMANGO DUTE EGUENEAN, ELGOIBARREN, KORRIKA KULTURALAREN BARRUAN

Korrika kulturalaren barruan, Fermin Muguruzaren *No more tour* dokumentala eskainiko dute martxoaren 19an Elgoibarren (Herriko Antzokia, 21:30ean). AEK-k eta Ongarri zineklubak elkarlanean antolatu dute emanaldia. 2013ko martxo eta abuztu artean Fermin Muguruzak eta Kontrakantxa bandak munduaren luze zabalean egindako biraren berri ematen dute *No more tour* lanean, baina jokatuko 55 kontzertuen edo parte hartu zutenen bizipenen gainetik, Muguruzak azkeneko 30 urteotan josi duen sarearen ehundura nolakoa den erakusten dute. Fermin Muguruzak munduan zehar topatutako erresistentzia eta konplizitatez osatutako mapa marrazten dute 105 minutuko dokumentalean. Sarrera doan izango da.



Ana Casquero

Noiz eta nola gerturatu zinen zu euskarara?

Nik uste dut 18 bat urterekin izan zela, Institutuan hasi nintzen garaian-edo. Gure gurasoak Extremaduratik etorritakoak dira eta nik Santa Klarako kolegioan ikasi nuen, erdaraz. Koadrilan ere ez genuen euskaraz hitz egiten, baina

inguruan entzuten nuen euskara eta piztu zitzaidan barruan zerbait, piztu zitzaidan ikasteko gogoia. Hala, gau-eskolan eman nuen izena, eta handik AEKra pasatu nintzen gero. Urte batean, gainera, barnetegian ere egin nuen abuztu bat, Amezketan, eta sekulako esperientzia izan zen. Hantxe soltatu nintzen, han galdu nuen euskaraz hitz egiteko lotsa. Optikan egin dut beti nik lana, bezeroekin harreman zuzenean, eta sentitzen nuen derrigor ikasi behar nuela euskaraz, ez zelako bidezkoa euskaldun bati hizkuntzaz aldatzea eskatzea Elgoibar batean, neuk ez nekielako. Lotsa ere sentitzen nuen. Kontzientzia hori izan baren, baina egia da euskaltegian hasi eta utzi ibili naizela urte askoan. Duela bi urte utzi nion azkenekoz, eta aurten eman dut berriro izena. **Euskaraz komunikatzeko arazorik ez duzu. Zer dela eta erabaki duzu euskaltegian berriro izena ematea?**

Euskara izugarri gustatzen zaidalako eta ez dudalako galdu nahi dakidana. Bide batez, alfabetatzeko ere bai. Euskaraz idaztea, adibidez, asko kostatzen zait, eta nahiko nuke ikasi. Eta bestetik, giroa hain da ona... hain dira jatorrak Amaia eta Alfonso... benetan, ni oso-oso gustura joaten naiz euskaltegira. Bikotekidearen aldetik inguru euskalduna daukat, eta horrek asko lagundu dit ikasteko, baina garbi daukat euskaltegira joan gabe ez nuela lortuko. Euskaltegiak, gainera, lagun berriak egiteko aukera ere eman dit. Tarteka egiten ditugu afariak eta joaten gara kultur ekitaldi batzuetara ere. Euskaltegira joateak euskal kulturaren murgiltzeko aukera ere eman dit. Joan zen urtean, bertsolari txapelketako finalera ere joan nintzen, eta izugarria izan zen. Han egon

nintzen lehenengo ilaran, adi-adi, ez delako erraza bertso guztiak ulertzea. Euskaltegira joateak ere badu hori. Euskara ikasten duzu, baina aldi berean, euskal mundu oso bat zabaltzen duzu.

Ikasle eredugarri zinela esan ziguten AEKn, eta transmititzen duzun bizipoz hori izan daiteke, bai, amu ona zalantzan dauden horientzat.

Euskara sekula ez da karga izan niretzat, eta hori garrantzitsua da, gustura hartzen dena beti delako errazagoa, baina benetan, hasieratik disfrutatutako dut nik euskaltegian. Astean birritan joaten naiz. Bi ordu t'erdikoak dira eskolak, baina azkar pasatzen da denbora. Hizkuntza bera gustatzen zait, ikaragarri. Garbi daukat ez nintzela ingelasa ikastera joango, adibidez, baina euskara ikasten jarraituko dut, bai. **Zure kasuan, beraz, ez da horrenbeste beharra izan euskara ikastera bultzatu zaituena.**

Ez. Tituluen beharrik-eta ez dut izan. Atera nuen bat, eta saiatu nahiko nuke orain hirugarren mailako titulua lortzen, baina beharrik ez dut. Ikasten jarraitu nahi dut, sekula ez delako nahikoa, baina ez euskaraz eta ez beste edozein hizkuntzatan ere. Ni beti izango naiz euskaldun berria, ikasia dudalako euskara. Gaur egun, asko egiten dut euskaraz. Seme-alabekin dena, eta lanean ere, asko. Garai batean erdaraz egiten nien batzuei ere gaur euskaraz egiten diet.

Askok esaten dute ohiturak aldatzea zaila egiten zaiela. Kostatzen zaie la erdaraz ezagutu zituztenekin bat-batean euskaraz hastea.

Hori aitzakia baino ez da. Nik aldatu dut. Batzuei harrigarria egingo zaie, beharbada, ni euskaraz entzutea orain, baina aldatzen dute. Euskaldun zahar askok badute hori, baina. Hor arazoa eurena da.

Zer galtzen du euskaraz ez dakienak?

Dena. Mundu ikuskera oso bat.

Korrikan parte hartu duzu noizbait? Parte hartzeko asmorik baduzu aurten?

Bai, hartu izan dut parte. Pankarta eraman izan dut AEKkoek eskatuta, eta aurten, lekukoa hartuko dot. Josu [Merino] ikaskideak eta biok eramango dugu. Sekulako ohorea da niretzat, eta hunkitu ere egiten naiz.



Josu Merino

Noiz hasi zinen euskara ikasten eta zerk bultzatuta?

Lanerako eskatzen zidatelako hasi nintzen euskara ikasten orain hamar bat urte. Suhlitzalea naiz ni eta lehenengo perfila ateratzea eskatzen zidaten lanerako. Segituan atera nuen,

eta jarraitu nuen gero apur batean, bi-hiru urtean, baina garai hartan txandaka egiten nuen lan eta denbora gehiegirik ez neukanez eta euskara ez zegoenez nire lehentasunen artean, berehala laga nuen. Ez neukan argi euskara ikastea komeni zitzaidan edo ez, eta ez nuen beharrik ere sentitzen, sakrifizio handia zen niretzat euskaltegia joatea. Gustura egiten ez dena karga bihurtzen da, eta karga albo batera uzten duzu beti, gustuko gauzak egin ahal izateko.

Heldu diozu, hala ere, berriz euskarari eta ikasle eredugarria zarela ere esan digute.

Eredu ni? Horrenbeste urtean ikasita izan beharko nuke nik dagoeneko, eta begira nola ari naizen! Ez nuke esango ere onena naizenik. Baina, bai, aurten animatu naiz berriz. Nire egoera pertsonala aldatu egin zen, eta denbora gehiago ere banekanez, berriro eman nuen izena euskaltegian. Sentitzen nuen heldu behar niola euskarari eta lankideei ere esan nien behingoz ikasi arte ez nuela utziko. Lankideekin eta kalean euskaraz egiten dut, baina gaizki. Ulertu dena ulertzen dut, baina hitz egiterakoan hanka sartzen dut beti. Lotsarik ez daukat, hala ere, eta badakit saiatu egin behar dudala ikasteko, klasera joan arren kalean egiten ez badut, jai dagoelako. Horregatik inguruko denei esana diet oso deseroso egiten ez bazaie behintzat niri euskaraz egiteko. Badakit askorentzat ez dela batere eroso, nirekin beti erdaraz egin dutelako, baina eskatuta, egiten dute. Nire koadrilan gehienek badakite euskaraz, baina erdaraz egin dute beti, errazagoa egiten zaielako. Ni euskaraz egiten hasi natzaienean, baina, aldatu dute erregistroz. Gero, ostiral batzuetan deitzen diet mendian egindako beste lagun batzuei ere, zer bait hartu eta bitartean nik euskara lantzeko, bestela ez daukadalako aukera handiegirik ere.

Beharra egin duzu beraz euskaraz jakitea.

Lehen, karga zen euskara niretzat. Ikastera ere titulu hori eskatu zidatelako joan nintzen, ez Elgoibarren bizitzeko behar nuelako, hemen batzuetan erdaraz bizitzea bera errazagoa delako euskaraz bizitzea baino. Orain, gustura joaten naiz euskaltegia, eta rokodromoan eskalatzeko gustura egon arren, ez zait ardura izaten lagunak han utzi eta euskaltegia joatea. Lehen karga zena, orain aberasgarria iruditzen zait. Orain jabetu naiz zer den euskaraz bizitzea, eta euskaraz bizi nahi izatea. Lehen ez nuen ulertzen sentimendu hori, baina berandu izan arren, konturatu naiz euskara dela gure herriaren ezaugarri nagusia eta hori zaindu ezean gure nortasunaren parte bat galduko dugula.

Euskarak bertakotzen laguntzen duela esan izan digute askok. Bat zaitoz?

Izan daiteke, bai, baina nik neuk sekula ez dut sentitu euskara ez jakitzeagatik gutxiago nintzenik. Beharbada Azpeitian edo Lesakan bizi banintz, aurretik sentituko nuen, baina Elgoibarren erdararekin bakarrik lasai bizi zaitezke. Azpeitian edo Lesakan euskaraz jakitzeak atea ireki diezazuke edo bertakoago sentitzen lagundu, baina Elgoibar ez dut uste denik ere onena inor euskarara bultzatzeko, kaleko giroa eralduna delako. Hemen gerta daiteke taberna batean *bi zurito* eskatzea eta tabernariak erdaraz erantzutea.

Euskarak zer eman dizu zuri?

Beharbada esan dizudana: Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dutela diotenei ulertzea. Lehen, hitz horiek ez zuten ezer esan nahi niretzat, baina orain, bai.

Gehien kostatzen zaizuna?

Esaldiak txukun osatzea. Lotsarik ez daukat, hala ere, eta etorri ahala botatzen dut, utzi niolako erdaraz pentsatu eta euskarara itzultzeari. Orain euskaraz pentsatzen dut, eta pentsatutakoa botatzen dut. Badakit hanka-sartze asko egiten ditudala, ez naizelako gai dena batera egiteko, baina orain badakit Euskal Herrian bizi naizela eta ez Burgosen.

Zein helbururekin ari zara ikasten?

Gustatuko litzaidake aurten bigarren perfila lortzea, baina titulua edukitzeko baino gehiago da bigarren perfil hori gaindituz gero uste dudalako gai izango naizela aditzak-eta ondo erabiltzeko. Aurten, euskaltegian hasi nintzenean, irakurtzen hasi berri den ume baten pare nintzen BARREN irakurtzen, baina orain

gai naiz jarraian irakurtzeko eta baita euskarazko informatiboetan esaten dutena ulertzeko ere. Niretzat hori asko da, lehen kirolkontuak bakarrik ulertzen nituelako euskaraz, edo gai arruntak bestela. Baina nahiko nuke horrenbeste pentsatu beharrik gabe hitz egiteko gai izatea noizbait euskaraz.

Korrikan parte hartu duzu noizbait?

Bai. Euskaltegian hasi nintzenean parte hartu nuen lehenengoz Korrikan, ordura arte niretzat ez zuelako ezer esan nahi horrek. Azkeneko aldietan pankarta eramaten laguntzeko eskatu izan didate euskaltegiko arduradunek, Korrika herritik irteten denean jendeak ospa egiten duelako eta behar izaten delako jendea herri batetik besterako bidea egiteko. Joan izan naiz Debaraino ere, pankartaren arduran. Aurten, lekukoa eramatea eskatu digute Ana Casquero eta biori, eta lotsa pixkat ematen badit ere, ohore handia izango da niretzat. Ilusioa egiten dit.

Zer esango zenieke euskara ikasteko beharrik sentitzen ez dutenei? Eta jakin arren, euskaraz egiten ez dutenei?

Euskaraz jakitzea aberasgarria dela edonorentzat. Hastea ilusioz, ilusioz hartzen dena askoz errazago egiten delako eta emaitza beti delako hobea. Eta besteei, berriz, esango nieke ez uzteko euren nortasunaren parte bat galtzen.

“Euskara,
lehen karga zena,
aberasgarri zait orain”

‘Betirako argia’



Kazetaritza ikasketak bukatu ostean, Ekuadorrera joan zen Jairo Berbel, lan bila. Hara iritsi eta berehala hasi zen lanean telebistarako ekoiztetxe batean, eta beste hainbat lanen artean, minbizia zuten gazteei buruzko erreportaje bat egitea egokitu zitzaion. Lan horrek goitik behera aldatu zuen Jairoren bizitza. Julexi Carolina Chevez ezagutu zuen, Minbiziaren Kontrako Gazteen Fundazioko kidea, eta maitemindu egin ziren. Hilabete gutxi iraun zituen maitasun istorio hark, Yulexik minbiziaren kontrako guda galdu zuen arte, hain zuzen ere. Yulexiren ametsei segida eman nahi die orain Jairok, eta dagoneko hasi da dokumental eta liburu baina prestatzen. ‘Betirako argia’ jarri dio izenburua proiektuari, eta udarako ikusiko du argia.

Ainhoa Andonegi

Betidanik izan du Jairok bidaiatzeko eta mundua ezagutzeko interesa, eta kazetaritza ikasketak bidaiatzeko zaletasun horrekin uztartzeko aukera izan du. Unibertsitatean beka bat eskuratu zuen, eta Brasilera joan zen kazetaritza praktikak egitera. Gero, Tomas Madinabeitia misiolaria ezagutu zuen, eta harekin joan zen bi udatan Kongora hango umei laguntzera. Bere begiez ez ezik, argazki kamerarekin ere jasotzen ditu bere bizipenak, eta Kongoko bidaietan batutakoarekin bi dokumental sortu zituen. Kazetaritza ikasketak bukatu ostean argazkilari lanean hasi zen, baina lan horrek ez zuen erabat betetzen, beste zerbait behar zuen, eta Latinoamerika aldera joatea erabaki zuen. “Herrialde horiek oso desberdinak dira, gatazka egoeran bizi dira eta horrek kazetari bezala garatzeko aukera ona eskaintzen duela uste dut”. Maleta egin eta, 2013ko abuztuan Ekuadorrerako bidea hartu zuen bere ikaskide izandako lagun batekin. Lanik gabe eta di-



ru gutxirekin joan ziren, baina hiruzpalau astetan lanean ziren biak. Jairo telebista ekoiztetxe batean hasi zen lanean. Bizi Onaren Ministerioarentzat lan egiten du ekoiztetxe horrek, eta naturarekin, bizitzarekin, animaliekin, eguneroko bizi-istorioekin zerikusia duten dokumentalak egiten ditu: "Bizitzako oinarrizko balioetan oinarritzen dira gure dokumentalak", adierazi du Jairok. Besteak beste, Amazonasean barneratu eta hango indigenen bizimodua ezagutzeko aukera izan zuen. "Lan gogorra, baina aldi berean aberasgarria" izan zen.

Hala ere, bere bizitza goitik behera aldatuko zuen dokumentala iristear zegoen oraindik. Iazko urtarrian Minbiziaren Kontrako Gazteen Fundazioari buruzko erreportaje bat egiteko eskatu zioten. Fundazioak urte asko daramatza martxan, eta minbizia duten gazteen ametsak egi bihurtzeko lanak egiten ditu. "Gazte horien sufrimendua apur bat arintzen saiatzen dira". Fundazioko kideek boluntario egiten dute lan, eta irabazi asmorik gabeko elkarte da. Egin beharreko lanen artean, Yulexi Carolina Chevez gaztearen graduazio ekitaldia grabatzera bidali zuten Jairo. "Minbizia zeukan neska gazte batek Batxilergo ikasketak amaitu zituela-eta, graduazio ekitaldia grabatu behar nuen". Jairok argazkietatik soilik ezagutzen zuen Yulexi. Jendez beteriko areto handi batean hasi zen haren bila, eta halako batean aurkitu zuen, aretoaren barrenean, jendez inguratuta. "Gure begiradak gurutzatu ziren, eta elkarri begira geratu ginen denbora batez, distantziatik". Une horretan bertan konturatu zen Jairo bizitzan estreinakoz maitemindu egin zela. "Bere begiradak eta edertasunak txunditu ninduten, eta une horretan bertan erabaki nuen berarekin egoteko ahal nuen guztia egingo nuela". Bukatu zuen grabazio lana, baina gauzak oso argi zituen Jairok, eta ingurukoek kontrakoa esaten bazioten ere, Yulexirekin berriz elkartu behar zuela erabaki zuen. Sare sozialen bidez jarri zen berarekin harremanetan, eta horixe izan zen nahigabea bukatuko zen maitasun istorio baten hasiera.

13 urterekin diagnostikatu zioten minbizia Yulexiri, eta hasierako fase bat gainditu ostean, berriz agertu zen gaixotasuna. 18 urte zituen Yulexik Jairok ezagutu zuenean. Batxilergoa bukatu zuelako omendu behar zuten, minbizia duten gazteentzat eredu zelako. Edertasun des-


file bat ere irabazi zuen, eta Unibertsitatera joateko ilusioa zeukan. Gaixotasunaren ondorioz, belauetik behera moztu zioten hanka bat, baina Jairo konturatu ere ez zen egin gabedia horretaz Yulexi ikusi zuen estreinako aldian: "Gona motz batekin zegoen arren, ez nintzen konturatu protesia zeukala. Hain zen polita...".

Yulexi eta Jairo, Jairo eta Yulexi, bat izan ziren hurrengo zortzi hilabeteetan. "Gure arteko harremana energia ziztada izugarria izan zen Yulexirentzat. Muxu eman zion lehenengo mutila izan nintzen, bere lehenengo bikotekidea. Pozik zegoen". Maitasunaz hitz egiten zuten, bizitzaz, amestez eta heriotzaz. Elkarrekin irakurtzen zuten, filmak ikusten zituzten, hondartzara bidaiatu zuten, eta horrekin bete zuten Yulexiren ametsetako bat. "Sekula hondartzan egon gabe zegoen, eta oso egun politak izan ziren". Eta sinestezi-na dirudien arren, korrika ere egiten zuten elkarrekin. Yulexiri izugarri gustatzen zitzaion korrika egitea, eta protesi berezi batekin irleten zen korrika egitera. "Bere bizitzeko gogoak ez zeukan mugarik". Baina min-

biziak aurrera egin zuen, eta Yulexi gero eta ahulago zegoen. Biriketara zabaldu zitzaion gaixotasuna, eta gero eta zailtasun handiagoak zituen arnasa hartzeko. Arnasketa krisiak gero eta sarriagoak ziren, baina beti gainditzen zituen, azkena iritsi zen arte. "Sendagileak esan zion aste gutxi batzuk geratzen zitzaizkiola, eta hala ere, bere azken agurra bideo batean grabatzeko indarra ateratu zuen". Zaintza aringarrien unitatea zeukan ospitale batera eraman zuten, eta une horretan konturatu zen Jairo azkena zela. Negar zotinka hasi zen, eta Yulexik agur esan zion, ez zuelako Jairo sufritzen ikusi nahi. Bere bizitzako atak itxi zizkion. Hiru gau eta hiruro egun pasatu zituen Jairok ospitaleko aulki batean, eta azkenean Yulexik onartu zuen Jairoren bisita. Azken muxua eta besarkada eman ostean, betirako itxi zituen begiak Yulexik.

Dokumentala

Jairoren bizitza erabat aldatu du istorio honek, eta orain Yulexiren ametsei segida ematen saiatuko da. Zortzi hilabete horietako bizipenak jaso ditu bere kamerarekin, eta orain dokumental bat prestatzen ari da. *Betirako argia* jarri dio izena eta udarako argitaratzeko asmoa dauka. (Dokumentalaren aurrerapena ikusteko: <https://m.youtube.com/watch?v=xpktrYCSXjs>). Horrez gain, Ekuadorreko *Diario La Hora* egunkarian zutabe bat dauka Jairok, eta han kontatzen dituen pasarteekin eleberria prestatzen ari da. Yulexik hasitako bideari jarraituko dio Jairok, haren ametsek hegan egin dezaten.





ESKERTZA

MARIA ANGELES LIZUNDIA GARATE


2015eko martxoaren 6an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

JUAN CRUZ MATA GARCIA

2015ko martxoaren 5ean hil zen, 75 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
"Betiko izango zaitugu gogoan"




I. URTEURRENA

MARIA IZAGIRRE URAIN

*Neguaren azkena hotz eta elur zen,
denboraren joanez joan dena urtzen.
Udaberriko lehen eguzkia gurtzen,
epelean malkoa bizi da bihurtzen,
oroitzapenak doaz minean lekutzen
ausentzia oro den betirako hutsen
arantzak eta ertzak leuntzen, leuntzen.*

Gogoan zaitugu. Etxekoak

*2014ko martxoaren 1ean hil zen, 91 urte zituela. I. urteurrenako bi meza egongo dira:
martxoaren 18an, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian eta
martxoaren 19an, 12:30ean Itziarko elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.*




II. URTEURRENA

CARMELO M^a IRIONDO ZULUAGA

*Betirako egongo zara
gure oroimenean*

*2013ko martxoaren 6an hil zen,
88 urte zituela*



Udaberriko Txokoak antolatu ditu Atxutxiamaikak Aste Santurako

Gaur bukatuko da izena emateko epea

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak aisialdi taldeak udaberriko txokoak antolatu ditu Aste Santuko oporraldirako. Martxoaren 30ean eta 31n, eta apirilaren 1ean, 7an, 8an, 9an eta 10ean egingo dituzte txokoak goizez, elizako arkupeetan. 2tik 8 urtera arteko umeek hartu dezakete parte. Elgoibarko Izarrako bazkideek 41 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 46 euro.

Era berean, Elgoibarko ludotekak eta Atxutxiamaikaren aisia egitasmoak Zelai baserrira irteera antolatu dute LH3tik LH6ra arteko ikasleentzat. Baserrira Mallabin dago, eta han, herri kirolean aritzeaz gain, norberak egindako txorixo muturra jateko eta baserriko animaliei jaten emateko aukera izango dute gaztetxoek. Antolatzaileek jakinarazi dute plaza mugatuak direla eta izenemate ordena errespatuko dutela. Izena emateko epea hilaren 18an bukatuko da. Bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 6 euro.

Txokoetan zein Zelai baserrirako irteeran izena emateko interesa dutenek www.elgoibarkoizarra.eus webgunean aurkituko dituzte izena emateko formularioak. Informazio gehiagorako 943 741 626 telefonora deitu edo aisialdia@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi daiteke.

'Pan y rosas' filma landuko dute gaur, Haizeak antolatutako zine-forumean

Haizea emakume taldeak zine-foruma antolatu du gaur gauerako. Ken Loachek zuzendutako *Pan y rosas* filma aztertuko dute gaurko saioan, Loredi Salegik dinamizatuta. Maya eta Rosa ahizpak mexikarrak dira, eta Hollywoodeko enpresa handi batean garbitzaile lanak egiten dituzte. Sam ezagutuko dute, langileen eskubideen alde lan egiten duten gaztea, eta une horretan beraien lan baldintza prekarioak hobetzeko borrokan hasiko dira. Klase sozial baxuak eta inmigrazioa eta enpresagizonen eta boterearen arteko harremana jorratzen ditu filmak. 21:30an hasiko da saioa, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

174 olio botila banatu ditu Errigorak Elgoibarren

Nafarroa hegoaldeko oliba-olioa erosteko kanpaina egin du Errigorak Euskal Herrian, eta guztira 9.100 bidoi saldu dituzte; 45.500 olio litro hain zuzen ere. Elgoibarren 65 lagunek hartu dute parte kanpainan, eta bost litroko 174 olio bidoi saldu dira, horietako 40 botila mendaroarrak erosi dituzte. Errigorako kideek eskerrak eman nahi dizkiete kanpainan parte hartu duten guztiei: "Eskerrik asko, denon laguntzari esker Nafarroa hegoaldeko uzta eskutik eskura sendotzen ari garelako". Maiatzean kontserba loteak erosteko kanpainari ekingo diote.



'Tomaxen abenturak' antzezlan, domekan

Xepeta produkzioak taldeak *Tomaxen abenturak* antzezlan eskainiko du domekan, Herriko Antzokian. 4 urtetik aurrerako umeentzako antzezlan da, eta ordubete inguru iraungo du. Tomax eta Muxugorri mendira joango dira. Perretxiko batzuk bildu ondoren tontorrera abiatuko dira makila hartuta. *Sarrerak* www.kutxa.net helbidean erosi daiteke aurrez, eta Internetez saltzen ez direnak Herriko Antzokiko lehiatilan salduko dira. Umeek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek, 5 euro. Antzerkia 16:30ean hasiko da.

Koadrilen arteko Trivial txapelketa, Ilunpen

Koadrilen arteko Trivial txapelketa antolatu du Ilunpe tabernak apirilaren 24tik 26ko astebururako (izena ematen duten koadrila kopuruaren arabera zehaztuko dute eguna). Talde bakoitza bost laguneko izan beharko da gehienez. Ilunpe Tabernak Facebooken daukan orrialdean edo Ilunpe tabernan bertan eman daiteke izena, apirilaren 12a baino lehen. Koadrila irabazleak afari bat jasoko du sarritzat.

Bi kontzertu eskainiko dituzte datorren astean Musika Eskolan

Inazio Bereziartua musika eskolak bi kontzertu antolatu ditu datorren asterako. Astelehenean musika eskolako talde instrumentalak eskainiko du emanaldia, eta martitzenean, Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek eta Usurbilgo Zumarte musika eskolakoek. Bi kontzertuak 19:00etan izango dira, musika eskolako auditorioan.

Horrez gain, martxoaren 25ean eta 26an musika eskolako dantza taldearen jaialdiak izango dira, 19:00etan, Herriko Antzokian.

Euskadiko mendi-eskiko kopa irabazi du Iñigo Larizek, besteak beste, Altitoy proban egindakoari esker

Asteburuan jokatu zuten Altitoy, eta laugarren egin zuen Larizek, Mikel Navarrokekin

J oan zen asteburuan jokatu zuten Altitoy mendi-eskiko proba entzutetsua Luz Saint Sauveur inguruko mendietan. Bi egunetan, bikoteka egiten den proba da Altitoy. Iñigo Larizek Mikel Navarrokekin osatu zuen bikotea, eta emaitza onak eskuratu zituzten: Larunbatean hirugarren egin zuten, eta domekan bosgarren postuan sailkatu ziren. Sailkapen nagusiari erreparatuta, laugarrenak izan ziren Lariz eta Navarro. Horrez gain, zapatuan Euskadiko taldekako txapelketa ere jokoan zegoen, eta eurek irabazi zuten. Emaitza horiei esker, Euskadiko Mendi-eskiko Kopa eskuratu du Iñigo Larizek. Arkaitz Irureta eta Joseba Elustondok ere hartu zuten parte Altitoy proban, eta baita Eneko Adurizek eta Mikel Armeniak ere. Azken hauek B ibilbidea egin zuten.



Arg.: JCDfotografia@carrerasdemontana.com

Iñigo Lariz eta Mikel Navarro.

Benjamin neskek futbol partidak jokatu dituzte Kalegoen plazan, emakumeen egunaren harira



Arg.: Aitor

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, herriko emakumeen arteko futbol partidak antolatzeko ahalegina egin zuen CD Elgoibarrek, baina jende gutxi eman zenez izena, benjamin mailako nesken arteko partidak antolatu zituzten, Eskola Kirola egitasmoarekin elkarlanean. Futbola Mintxetatik herrira ekarri zuten, eta Kalegoen plazan jokatu zituzten partidak.

Kirol campusean izena emateko epea hilaren 20an amaituko da

Aste Santurako kirol campusa antolatu du Kirol Patronatuak, eta datorren barixakuan, hilaren 20an, amaituko da izena emateko epea. 2001etik 2007ra bitartean jaiotako neska-mutilek eman dezakete izena. Martxoaren 30ean eta 31n, eta apirilaren 1ean, 7an, 8an, 9an eta 10ean, hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute partaideek, 9:30etatik 12:30era. Kirol Patronatuko bazkideek 55 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 60 euro.

Martxoko azken asteburura atzeratu du Morkaikok mendi-eski irteera

Morkaiko mendizale elkarteak otsaileko azken astebururako antolatu zuen aurtengo mendi-eski irteera, baina eguraldi iragarpenagatik eta elur jausi arriskuagatik atzeratu egin zuten. Printzipioz, martxoko azken asteburuan egingo dute irteera.

32 kilometroko Transgrancanaria proba irabazi du Ainhoa Lendinezek

3:05:58 denboran amaitu zuen lasterketa



Munduko ultra-trail zirkuituko estreinako proba jokatu zuten joan den asteburuan Kanaria Handian: Transgrancanaria. Bost distantzian banatuta aritu ziren antxixika 70 herrialdeko 3.000 lasterkari: 125 km., 83 km., 42 km., 32 km., eta 17 km. Ainhoa Lendinez elgoibartarrak 32 kilometroko proban hartu zuen parte eta bera izan zen azkarrena emakumezkoetan, 3:05:58 denborarekin. Helmugan ia bi minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari, eta ia hamar minutu hirugarrenari. 519 lagunek lortu zuten proba amaitzea, tartean 124 emakumek.

Kanaria Handira kazetari lanetan joatea zen Lendinezek lehen asmoa, baina lagun batzuek animatuta erabaki zuen Transgrancanaria probako lasterketa batean parte hartzea. 32 kilometrokoan eman zuen izena. 900 metroko desnibela zuen ibilbidea, gehienak beheraka, eta goraka hobeto moldatzen dela dioen arren, ibilbideaz asko gozatu zuela aitortu du. Hamabosgarren kilometrorra "ondo" iritsi zen, eta bigarren zihola jakin zuenean, hortzak estutu eta aurrera jo zuen. Hiru kilometroren faltan aurreratu zuen lehena ziholan neska, eta bera iritsi zen azkarren Maspalomaseko helmugara.

Pilota Eguna antolatu du Elgoibar Ikastolak biharko



Gaztetxoaren artean pilota, eta oro har, kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz, Pilota Eguna antolatu du Elgoibar Ikastolak biharko. 10:30ean hasiko dira partidak. Lehendabizi DBHko ikasleek jokatuko dute, eta gero LHkoen txanda izango da. Kalegoen plazan izango da pilota jaialdia. Hala ere, euria egiten badu, ikastolako frontoian jokatuko dute.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Hernani 3 (Prof.)
Ordizia 0 – Elgoibar 2 (1. erreg.)
Aloña Mendi 0 – Elgoibar 3 (Kad. A)
Berera 2 – Elgoibar 0 (Kad. B)
Santo Tomas 2 – Elgoibar 3 (Lehen inf.)
Elgoibar 4 – Allerru 0 (Inf. Txiki)

PILOTA

Udaberri Txapelketa

Hondarribi 22 – Lagunak 14 (2. mailako jub.)

Pala

Lagunak 25 – Zarautz 18 (1. mailako nag.)

Lagunak 25 – Urnieta 9 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Lauburu Ibarra 3 – Concepto Egile Elg. 5 (2B)

ESKUBALOA

San Roke Elg. 21 – Ereintza 12 (Inf. neska.)

Deca Elg. 30 – Leizaran 29 (Kad. mut.)

Lauko Elg. 17 – Logroño 33 (Sen. neska.)

Egia 30 – Alkorta Elg. 28 (Sen. mut.)

Astigarraga Elg. 26 – Eibar 23 (Jub. neska.)

Beristain Elg. 25 – Urola 28 (Jub. mut.)

Tecnifuelle Elg. 22 – Kukullaga 18 (Kad. neska.)

Pneumax Elg. 19 – Ordizia 23 (Kad. neska.)

Ikus Elg. 19 – Aiala 16 (Inf. neska.)

Aloña 22 – Cometel Elg. 14 (Inf. neska.)

Zarautz 23 – Txariduna Elg. 25 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14

10:00 Elgoibar – Herrera (Inf.)

12:00 Elgoibar – Aurrera (Ohorezko kad.)

16:30 Elgoibar – Iluari (Erreg.)

Domeka, 15

10:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Lehenengo kad.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 15

12:30 Labastida – Concepto Egile Elg. (2B)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 14

10:00 Murgil Elg. – Amenabar (Inf. mut.)

11:15 Txariduna Elg. – Ereintza (Inf. mut.)

16:00 Bankoa Elg. – Zarautz (Kad. mut.)

19:30 Gabaz Elg. – Tolosa (Sen. mut.)

Domeka, 15

9:45 Sukia Elg. – Aloña (Aleb. neska.)

10:45 Comtel Elg. – Aiala (Inf. neska.)

LANA

ESKAERA

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Ordutegi malgua. ☎ **675 392 772**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ **634 278 902**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **688 825 514**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ **606 354 982**
- Gizonezkoa lan bila. Urmeen logelak apaintzeko era guztietako marrazkiak egiten ditut. ☎ **632 970 524**
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanetarako. ☎ **639 423 493**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako. Interna ere bai. ☎ **622 131 664**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako. Interna ere bai. ☎ **631 834 241**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako. ☎ **631 448 980**
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **602 846 244**

- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Sukaldari laguntzaile edo zerbitzari gisa lan egingo nuke. ☎ **631 974 442**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Adinekoak zainduko nituzke edo garbiketara lanak egin. Interna ere bai. ☎ **631 705 406**
- Emakume arduratsua adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Egunez zein gauetz. ☎ **682 255 834**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest. Interna ere bai. ☎ **632 454 417**
- Emakumea eskaintzen da, nagusiak zaintzeko. ☎ **632 955 016**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile aritzeko, adinekoak zaintzeko edo garbiketara egiteko. ☎ **632 423 984**
- Emakumea interna edo orduka lan egiteko prest. Erreferentzia onak eta esperientzia. Gidabaimena dut. ☎ **689 571 882**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- 43 urteko gizonezkoa lan bila. Euskal Herrikoa. Banatzaile, fabrika garbitzaile, igeltsero laguntzaile, lorezain... Fenwich erabiltzen esperientzia. ☎ **603 644 117 (Felipe)**
- Neska euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. ☎ **660 511 781**

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketara lanetarako edo sukaldari laguntzaile modura lan egiteko. ☎ **665 424 510**
 - Emakume serio eta arduratsua eskaintzen da lanerako. Interna edo orduka. Asteburuak ere bai. ☎ **631 124 942**
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **616 457 254**
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ospitalean ere bai. Gauetz edo orduka lan egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ **602 805 363**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka. Gauetz lan egiteko prest. Esperientzia handia daukat. ☎ **631 506 763**
 - Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Interna edo orduka. ☎ **631 834 241**
 - Emakumea eta gizona pertsona helduak zaintzeko prest. Egunez eta gauetz. ☎ **630 410 294**
 - Emakume euskalduna eskaintzen da goizez lan egiteko. Etxeko lanak egiteko. ☎ **639 054 041**
 - Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **608 523 426**
- ESKAITZA**
- Sukaldari laguntzailea behar da. CVak Gautxo tabernan utzi.

- Klase partikularrak jaso nahi nituzke: Gaztelania eta Matematika. Goi mailako modulo baterako maila. ☎ **943 741 042**

ETXEBIZITZAK

- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **661 064 027**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Logela bat edo bi logelakoa. ☎ **677 259 560**
- Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **609 523 426**
- Duplex bat salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Prezioa negoziagarria da. ☎ **660 055 692**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen da Jausoron. 15m2. 70 euro hilean. ☎ **650 130 213**

BESTELAKOAK

- Eibarren kafetegia traspasatzen da, zentruan. ☎ **659 377 095**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Eraikinaren elementu komuna den terraza batera sarbidea duen etxe batean bizi naiz. Terraza horren erabilera eskusiboa nirea da berez, eta sukaldari atetik eta galdarak dauden gelatik sartu naiteke bertara, baina galdaren gelako atea giltzarrapoz itxi dute orain. Komunitateko presidentea eta garbiketara enpresako langileak, hala ere, nahi bestetan sartu eta irteten dira ate horretatik terrazara. Sartu-irtenak justifikatu egin behar-

ko al lizkidakete?

Terrazaren erabilera eskusiboa zeurea denez, zure bizilagunek ezin dute terrazara sartu zure oniritziarik gabe. Bizilagunak behartuta daude zuri terraza hori erabiltzen uztera, baina beraiek ezin dute hor sartu.

Komunitateko instalazio nagusiak eta gainerako elementu komunak errespetatzeko betebeharrak ezartzen die legeak bizilagunei, izan erabilera orokorrekoak nahiz bizilagun jakin batenak.

Beraz, gainerako bizilagunak aurrez zuri baimena eskatuta bakarrik sartu ahalko dira terrazara, beti ere konponketaren bat egiteko edo adostutako garbiketara lanak egiteko beharrezkoa denean.

AHOLKUA: Legearen arabera, bizilagunak behartuta daude euren etxebizitza edo lokaletan behar diren konponketa lanak egitera eta baita urgentziak egin behar diren mantenu-lanak egiteko euren etxebizitzetan sartzen uztera.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






• Zorionak, **Maddi**, asteartean 6 urte egingo dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, ahizpa Garazi eta lehengusu Beñat, Malen, Denis eta Nahiaren partez.



• Zorionak, **Nahia**, atzo 5 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztion partez.



• Zorionak, **Axier**, martxoaren 11n 4 urte bete zenituelako. Alari, aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Telmo eta Ifigo**, astelehenean 3 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bana, etxekoen partez, eta bereziki, Antxon eta Nerearen partez.



• Zorionak, **Ilargi eta Alai**, maite zaituzten denen partez. Ondo pasa zuen bosgarren urtebetetzian.




• Zorionak, **Jon**, igandean 10 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eguna, familiakoen partez.



• Zorionak, **Iuren**, 5 urte! Asteartian primeran pasau genduan. Muxu haundi bat, danon partez.



• Zorionak, **Unai**, gaur 8 urte bete dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Haizea**, polit hori! 8 urte handi bete dituzenez, zortzi muxu potolo zureztat, etxeko guztion partez, eta bereziki, Joneren partez.

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Martxoko zubia dela eta, martxoaren 19an eta 20an ludoteka itxita egongo da

Gaur arratsaldean, hilak 13, **VI. Pintxo Lehiaketa** ospatuko dugu gaztelekuan. Izenematea egunean bertan




Eskerrik asko elgoibartarroi **25** urtean ondoan izan zaituztegunako!

Martxoaren 23an ospatuko dugu!

KAIA KAFETEGIA

San Frantzisko, 50
Tel.: 943 531 606

13 barixakua

Zine-forum

21:30 'Pan y rosas'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Dinamizatzailea, Loregi Salegi.

14 zapatua

Kirola

10:30 Pilota Eguna

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian.

15 domeka

Antzerkia

16:30 'Tomaxen abenturak'

Xepeta Produkzioak taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

16 astelehena

Kontzertua

19:00 Musika Eskolako talde instrumentala

Musika Eskolako auditorioan.

17 martitzena

Hitzaldia

18:00 Osasuna eta

kiropraktika

Xabier Mendiarazen hitzaldia, zaharren biltokian.

Hitzaldia

18:30 Pobrezia

feminizazioa

Nekane Juradoren hitzaldia, Kultur Etxean.

Kontzertua

19:00 Musika eskolen arteko kontzertua

Usurbilgo Zumarte eta Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolen arteko kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

19 eguena

Korrika Kulturala

21:30 'No more tour'

Fermin Muguruzaren kontzertuetan oinarritutako dokumentala. Herriko Antzokian.

23 astelehena

Korrika

10:15 Korrika Gaztea

Albitxuritik hasita

Korrika

15:00 Korrika Txikia

Elgoibarren Maalatik, Kalegoen plazara eta Mendaron, ikastolatik.

Korrika

18:15 Korrika

Sigman egingo diote ongi-etorria eta herria zeharkatuko dute.

Korrika

19:10 Korrika, Mendaron

Lanbi enpresa parean egingo diote ongi-etorria.

24 asteartea

Literatura

18:00 Tailerra

Consuelo Carrererekin, *A sangre fría* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

25 eguaztena

Dantza

19:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako dantza jaialdia, Herriko Antzokian.

26 eguena

Dantza

19:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako dantza jaialdia, Herriko Antzokian.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
13 Ibañez 14 Garitaonandia 15 Garitaonandia 16 Etxeberria 17 Fernandez 18 Yudego 19 Oruesagasti 20 Barrenetxea 21 Ibañez 22 Ibañez 23 Garitaonandia 24 Etxeberria 25 Fernandez 26 Yudego 27 Oruesagasti	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Birdman»

13, barixakua: 21:30

14, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

15, domeka: 19:00

16, astelehena: 21:30

«El destino de Júpiter»

20, barixakua: 21:30

21, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

22, domeka: 19:00

23, astelehena: 21:30

«No more tour» (Ongarri eta AEK)

19, eguena: 21:30

«Timbuktú» (Ongarri)

26, eguena: 21:30

OHARRA

San Jose Egunekeo jai-zubia dela eta, datorren barixakuan ez dugu BARREN astekaria kale-ratuko. Hurrengo alea martxoaren 27an jasoko duzue.

EMAN AURPEGIA

arrazakeriaren kontra

NAROA AGIRRE | Atletico San Sebastianeko pertika jauzilaria

#emaurpegia #arrazakeriarenkontra



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
Info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

San Roke 10-A behea B
☎ 647 463 436

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antollin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA